

2 SANFAUSTOAK • Durango

egitaraua

URRIAK 11 • eguna

18:30 Sugarri fanfarreagaz eta Ondarro-ako Erraldoi Artelan taldeagaz, kale animazinoa. Tritelarien saioa be izango da kaletan.

20:00 Udaletxetik txupinazoa botako dabe; eta Patxikotxu igongo dabe Santa Ana Arkura.

23:00 Montes Blancos taldeagaz, erro-meria, Ezkurdin.

URRIAK 12 • barikua

San Fausto bezpera

07:00 Txistulariakaz diana, eta dultzai-neroen kalejireia. Ostein, 07:30ean, Zezenak dira, dultzaineroek lagunduta.

11:00 Nekazari Azokea, Josemiel Barandiaran kalean.

11:00-13:30 Umeendako olgetalekua, Ezkurdin (euria bada, Merkatu plazan). Arrastian, 16:00etatik 18:00etara, Gue-zab Ba! taldeak antolatuta.

12:00 Alde Zaharrean, Paquetito kale antzerkia. San Faustoko landetan, Durango Uriko III. Ardi Txakur Txapelketea.

18:30 Aldatz fanfarreagaz, kale animazinoa.

23:00 Luhartz taldeagaz, erromeria, Andra Mari eleizpean.

23:00 Non Demontre taldearen, ikuski-zuna, San Agustin Kultur Aretoa. Aretoak sanfaustoei begira eratutako egitarauaren barruan sartzen da ikuskizun hau.

00:00 Alerta Roja eta Dogma herriko taldeak kontzertua. Extatixoy izango da talde gonbidatua.

URRIAK 13 • zapatua

San Fausto

07:00 Txistulariakaz diana, eta dultzai-neroen kalejireia. Ostein, 07:30ean, Zezenak dira, dultzaioneroek lagunduta.

08:00-14:00 Perretxiko bila urteera, Ezkurdiatik. Merkatu plazan aurkeztu behar dabez perretxikoak, 16:00etatik aurrera. Jarraian, sailkatu egingo dabez.

10:00 San Fausto frontoian, esku pelota partidua; Durangoko Pelotazale Alkarteak antolatuta.

10:30 IX. Marmitako Lehiaketea, Merkatu plazan.

11:00 Durangoko zaindariaren omenez, mezea, San Fausto eleizan.

11:00-13:30 Umeendako olgetalekua, Ezkurdin (euria bada, Merkatu plazan). Arrastian, 16:00etatik 18:00etara.



Reincidentesen kontzertua

11:30 Dultzainero eta erraldoiakaz kalejireia.

12:30 Ohorezko aureskua eta artopila banaketea. Ostein, Larraindantza eta Dantzari Dantza (Platilu soinuagaz), Kris-Kitin dantza taldearen eskutik.

13:15 Txalaparteia, Udaletxeko plazan.

15:00 San Fausto Jaiak 2001 III. Mus Txapelketea, Hamabi Alkarteak antolatuta. Finala 18:00etan izango da, Zabale ka-lean.

16:30 Mañaria errekearen jeitsiereia, Ourdaybi taldeak antolatuta. San Fausto auzoan ponyak eta txokolatadea egongo dira, fanfarreak alaituta.

18:30 Jo Ta Be eta Tirri-Tarra fanfarreakaz, kale animazinoa.

20:00 Txistu kontzertua, Andra Mari elei-zan, Berzitu Txistuzale Alkarteak antola-tuta (zuzendari lanetan, Jabier Ituartek jardungo dau).

22:00 Alaitz eta Maiderren emanaldia, Andra Marin.

23:00 Joselu Anaiak taldearen dantzal-dia, Ezkurdin.

00:00 Reincidentes taldearen kontzer-tua, Landako ikastetxean.

URRIAK 14 • domeka

07:00 Txistulariakaz diana, eta dultzai-neroen kalejireia. Ostein, 07:30ean, Zezenak dira, dultzaineroek lagunduta.

09:00 Txakur txapelketea izango da, Maristetan.

10:00-13:30 27. Marrazki Lehiaketea,

San Fauston. Izena emoteko epea 12:30 arte luzatuko da.

10:00-14:30 Umeendako olgetalekua, Ezkurdin (euria bada, Merkatu plazan).

11:00-14:00 Erakusketa Mikologikoa. Perretxikoak sailkatzeko txapelketea 14 urtetik beherako gazteendako.

11:30 San Fausto XVIII. Zesta-Punta Txapelketea, Ezkurdiko Jai Alai pelotale-kuan. Peña Ezkurdik antolatutako saioa.

12:00 Gau Txoris taldea izango da jai gi-roa alaitzen.

17:00 Herri kirolak, Ezkurdin. Ordu bere-an, Cultural-Salleko futbol partidua, Tabi-ran.

18:00 Sopa de Croquetas taldeagaz, erromeria umeendako, Andra Marin.

18:30 Gazteleku fanfarrea giroa alaitzen

Reincidentes taldeak kontzertua eskainiko dau, San Fausto egune-an, hilak 13. Kontzertua Landako ikastetxeko frontoian izango da. Jai Batzordeak ekitaldia bertan behera geratu ez daiten bermatu gura izan dau. Igaz, euri zaparrada zala-eta Loquillo y los trogloditas taldeak ez eban joterik izan. Hala-korik gerta ez daiten se-gurtatu gura izan dabe.

19:00 Arde kale ikuskizuna eskainiko dabe, Santa Anan.

URRIAK 19 • barikua

23:00 Etsaiak eta Txapelpunk taldeakaz kontzertua, Ezkurdin.

URRIAK 20 • zapatua

Mozorro Eguna

07:00 Txistulariakaz diana, eta dultzai-neroen kalejireia hasiko da. Ostein, 07:30ean, Zezenak dira, dultzaineroek la-gunduta.

09:00 Eskalada txapelketea, Landako

kiroldegian. Ourdaybi taldeak antolatuta-ko ekitaldia.

11:00-13:30 Umeendako olgetalekua, Ezkurdin (euria bada, Merkatu plazan). Arrastian, 16:00etatik 18:00etara.

11:30 Erraldoi eta buruhandiakaz kaleji-rea izango da.

12:00 Trikitilariakaz kalejireia. Ostein, ekitaldia eskainiko dabe, Andra Marin.

16:00 Umeendako karaokea (euskaraz) eta txokolatadea, Andra Mari eleizpe-an. Era berean, Mañaria errekearen pira-gua jeitsiera izango da, Ourdaybik anto-latuta.

18:00 Robin Apple Arku Jaurtiketa Txapelketearen finala, Ezkurdiko frontoian. Durangaldeko Arkeren Alkarteak anto-latutako ekitaldia.

18:30 Kuklux Band eta Aldatz Gora fan-farreagaz kale animazinoa.

19:00 Dultzaineroakaz kalejireia, Alde Zaharrean.

00:00 Nuevo Talisman orkestragaz erro-meria, Ezkurdin.

02:00 La Otxoa, Andra Marin.

URRIAK 21 • domeka

07:00 Txistulariakaz diana, eta dultzai-neroen kalejireia. Ostein, 07:30ean, Zezenak dira, dultzaineroek lagunduta.

10:30 Bakailaoa Bizkaiko Erara IV. Txapelketea, Andra Marin.

11:00-13:00 Arku jaurtiketea azokan. Doan izango da, Durangaldeko Arkeren Alkarteak antolatutako ekitaldia.

11:30 San Fausto XVIII. Zesta-Punta Txapelketearen finala, Ezkurdiko Jai Alai frontoian. Peña Ezkurdik antolatutako eki-taldia.

17:00 Futbol partidua, Tabiran: Ohorez-ko Jubenilak Honor-Getxo.

18:30 Zoroak fanfarreagaz, kale anima-zinoa.

19:30 Alma Navarra taldearen emonaldi-a, Ezkurdin.

21:00 Jendea Santa Ana batuko da, eta Patxikotxu erreko dabe. Segidan, jai ei amaiera emoteko, azken trakea.

URRIAK 28 • domeka

33. Umeen Euskal Jaia

12:00 Hainbat dantza talde Jesuitetan batuko dira, eta hainbat saio eskainiko dabez Durangoko kaletan.

17:00 Umeen Euskal Jaian parte hartu daben taldeek alardea eskainiko dabe. Euria egiten badau, Merkatu plazan izan-go da.

Atxo Fun Fun sanfaustoetan

URRIAK 11 eguna	00:00 Du Javi Love Ryder
URRIAK 12 barikua	00:00 Aluibe (flamenko gaztea).
URRIAK 13 zapatua	00:00 Kesengue (Afrikako perkusinoa). Bidalitako postalen zozeketea egingo dabe.
URRIAK 19 barikua	00:00 Luhartz taldeagaz erromeria.
URRIAK 20 zapatua	00:00 Konfusion Band (Durangoko latin jazz taldea).
URRIAK 21 domeka	00:00 Konfusion Band (Durangoko latin jazz taldea).

INTXAURRE

HERRIKO TABERNA

EUSKAL PRESOKAK



EUSKAL HERRIRA

DURANGO


ALLUITZ MOTOR, S.A.



☎ 946 202 004

Alluitz, z/g - Faxe: 946 200 998
48200 DURANGO

BELARDENDA



Barrenkalea, 28
☎ 94 681 79 18 - DURANGO